BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1946

65/2014 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, zeinaren bidez urgentziazko deklaratzen baita Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak honako proiektu honek eragindako eskubide eta ondasunak okupatzea (nahitaezko desjabetzea): «Boluetan, Nerbioi ibaiaren ur ponpaketa berritzea, eta Arratia ibaiko emaria –4.500 litro segundoko– aprobetxatzea, energia elektrikoa ekoizteko».

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, aipatu proiektuaren espedientea formalki onartu eta gero, proiektua gauzatzeko lur guztiak erabiltzeko beharra adierazi zuen (proiektua: «Boluetan, Nerbioi ibaiaren ur ponpaketa berritzea, eta Arratia ibaiko emaria –4.500 litro segundoko– aprobetxatzea, energia elektrikoa ekoizteko»).

2013ko martxoren 26an, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak nahitaezko desjabetze espedientea hastea zein ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea erabaki zuen, 15 eguneko epez prentsan eta 2013ko maiatzaren 3an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (84. zk.) argitaratuz. Geroago, 2014ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Eusko Jaurlaritzari proiektuak eragiten dituen eskubide eta ondasunak okupatzeko premiazkotasunaren adierazpena eskatzea erabaki zuen, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Urgentziaz okupatu beharreko ondasunak eta eskubideak banakatuta eta zehazturik agertzen dira dosierrean jasotako zerrendan, identifikazioak egiteko datu askirekin agertu ere. Zerrenda hori jendaurrean jarri zen egoki zenean, eta ez zen alegaziorik aurkeztu, administrazio-espedientean adierazten denez.

Zerbitzu teknikoek ikusi dutenez, ez dago espedientea izapidetzeko inolako hirigintza-oztoporik.

Ondasun eta eskubide horiek okupatzea luza ezinezkotzat jotzen da, honako arrazoi hauengatik:

Lehorte sasoietan sortutako ur horniduraren arazoak ebaztea Nerbioi ibaiko ponpategiaren berrikuntzaren bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f) artikuluan xedatzen denaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio: nahitaez desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak urgentziaz okupatu behar direla deklaratzea, nahitaezko desjabetzeak honako hauek hartzen dituenean: burutze-unitate osoak, lurraldearen hirigintza-antolaketari dagozkion sistema orokorrak edo antolaketa horren elementuren bat eta hiri-lurzoruan egin beharreko banakako jarduketak. Goian aipatutako Lege horrek 26.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, lurralde antolamenduaren eskumenak dituen sailburuari zegokion horretarako proposamena aurkeztea Jaurlaritzaren Kontseiluari.

Hori dela bide, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak proposaturik, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2014ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 26. artikuluan xedatutakoari jarraituz, urgentziazko deklaratzea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak honako proiektu honek eragindako eskubide

eta ondasunak okupatzea (nahitaezko desjabetzea): «Boluetan, Nerbioi ibaiaren ur ponpaketa berritzea, eta Arratia ibaiko emaria –4.500 litro segundoko– aprobetxatzea, energia elektrikoa ekoizteko». Berariaz hasarazitako espedientean jasotako zerrendan daude zehaztu eta banakatuta ondasun eta eskubide horiek.

AZKEN XEDAPENA

Administrazio-bidea amaitzen duen dekretu honen aurka, lehenik, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Jaurlaritzaren Kontseiluari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean. Epeok, dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik hara zenbatuko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko apirilaren 15ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.